

68.

zenbakia

2024ko martxo

debaldeko alea

www.kotarro.eus

kotarro

Garean-Jarduerak

MINTZAPOTE

Martxoak 7, 19:00
Ametsa taberna

TXOKOLIPUINAK

Otsailak 29 – Maitane Perez
Martxoak 21 - Xabier Flamarique
17:30 Alfonso Ugarte aretoa

IRAKURRI, GOZATU, BERTAN EROSI ETA OPARITU

Martxoaren 15etik

BIZKARSORO

Filma + solasaldia
Martxoak 5, arratsalde
Los Llanos Kulturagunea

KORRIKA KULTURALA eta GEHIAGO

Garagardo dastaketa
Martxoak 1, 20:00
Peñaguda elkarte

Bisita gidatua

Martxoak 2, 16:30
Karlismoaren museoa

Bertso-merendua

Martxoak 2, 19:00
Aritzala, Ostatu

Familia-zinema: Museoaren zaindariak

Martxoak 3, 17:00
Los Llanos Kulturagunean

Habiako ipuin-musikatuak, Ameli

Martxoak 3, 17:30
Abartzuza, Anberria elkarte

%100 Hodei Magoa

Martxoak 10, 17:30
Villatuerta, Jubilatuen elkarte

Zinema: Negu hurbilak

Martxoak 8-11
Los Llanos Kulturagunean

KORRIKA EGUNAK

Martxoak 2, Ameskoa (Eulate)
Martxoak 9, Oteitza eta Lokitzalde
(Iturriaga)
Martxoak 15, Irriherri (Muetz)
Martxoak 17, Lizarra

Harro korrika!



Harro herri, harro Lizarra, harro korrika! Euskararen alde urteetan zehar Korrikan aritutako oro harro egon beharra du. Harro gaude euskaldunak izateaz; gure hizkuntzaren aldeko borrokarengatik harro. Kanta ezagun batek dioen bezala, “hasi etxetik eta kalera, hasi kaltetik eta etxera”. Aurten ere kaleetan nahiz etxeetan izango garelako Korrikaren partaide. Arnasestuka, barrezka edo kantari: familiarekin, kideekin edo lagunekin. Denok euskararen aldeko lasterketan.

Euskarak oraindik ere bizi duen egoera korrikan egitera bultzatzen gaituelako. Bada garaia euskararen

militante bilakatzeko, euskara gure bizitzako arlo guztietara eramateko. Martxoak aldarriez beteko ditu Lizarra eta Lizarraldeko herriak. Baina otsailak ere gure hizkuntzaren inguruan hausnartzeko tarte irekiko digu.

Era askotako jarduerak beteko dute hortaz Korrikari begirako egun guztiak. Korrika Kulturala izanen da Korrikak Euskal Herriari egiten dion eskaintza, kulturari dagokionez; eta emanaldi ugari eskainiko dira Euskal Herriko hainbat txokotan. Beraz, ez galdu aukera Korrikak eskaintzen dituen momentu guztietaz gozatzeko.

Korrika Kulturala eta Ibilbidea Lizarraldean



Gareanen eskutik Katxiporreta Los Llanosen otsailaren 7an

Lasterka egin aurretik zein ondotik komeni da beroketa ariketak eta luzaketak egitea. Bada, berdin egiten du Korrikak, lasterka egin aitzin Korrika Kulturala ziztu bizian dator.

Korrika Kulturala

Lasterka egin aurretik zein ondotik, komeni den bezala beroketa ariketak eta luzaketak egitea, Korrikaren aitzinean Korrika Kulturala egiten da. Horretan, herriko eragileek (euskara elkarteak, elkarte gastronomikoak, musikari zein dantzari taldeak, kirol klubak...), zenbaitetan instituzioek eta euskaltegiak kultur proposamenak antolatzen dituzte. Honako hauen berri izan dugu Kotarron.

Batetik, zenbaki hau argitaratu baino lehen, jende ugari bildu zen aurreneko ekitaldian: otsailaren 7an Los Llanos aretoa bete zuten familiek pailazoen ikuskizunean; hurrengo egunean, Gazteriaren etxean Korrikaren aurkezpena izan genuen, arropa desfilea, Ainhoa Egizabalen dantza; eta 16an Andrina Basandrina Bota Peñan. Ondoko asteburuan, 23an «Eskalada AntiAtlas eta Sizilian» diaporama Mendizale Elkartearen, 24an Lizarran Kantuz eta 25ean «Aztarna Grafikoak» erakusketan bisita gidatua Iñaki Riferarra egilearen eskutik.

Lizarrako udalaren kilometroa?

Aspaldiko partez, Lizarrako udalak erabaki du kilometroa ez erostea eta Korrika Batzordeak herritarrak,

elkarteak eta eragileak deitu ditu metro horiek denon artean artean erostera. Hala, «Etorkizuneko ahots bat iraganean» antzerki-musikatuarekin aurretik, 27ko asteartean, argazki kolektibo handia egin zen, «Udala guztion etxea denez, guztion Kilometroa nahi dugu» leloarekin.

Udalaren erabakiak erabaki, Kulturalak ez du ete-nik izan, horrenbeste ekitaldirekin normala ezarriak egarri eta sabelak gose izatea, ezta? Bada, lasai, ezarri idortuek eta sabel hutsek izanen baitute nola ase haien gabezia: Martxoaren 1ean garagardo dastaketa egingen da Peñaguda elkartearen eta 7an mintza-pote izanen da Ametsa tabernan 19:00etatik aurrera..

Martxoaren 2-3ko asteburuan, halaber, bi hitzordu izanen ditu euskaltzaleak: larunbatean 16:30ean bisita gidatua euskaraz Karlismoaren museoan eta igandean 17:00etan «Museoaren zaindariak» animaziozko filma Los Llanosen. Eta martxoaren 5ean Euskal Herrian bolo-bolo dabilen Bizkarsoro film zirrargarria Los Llanos aretoan.

Eta herrietan?

Bada, ameskoarren hitzordu nagusia martxoaren 2an izanen da, orduan egingen baita Ameskoako Ko-

rrika. Aurten Artatza aldetik abiatuko da lasterketa eta ibar osoa zeharkatu ostean, bazkaria eta ondoko festa lehenbiziko aldiz Eulaten ospatuko da. Lokitzaldeak, berriz, martxoaren 9an jarri du jomuga, orduan ospatuko dute Euskararen Eguna eta Korrika Festa batera, Iturriagan: Korrika Txikia, herri kirolak, pintxo-potea, puzgarriak, artisauak, bazkaria, ludoteka Dindaiarekin, kalejira Broken Brothers Brass Bandekin, txokolate-jana, «La Jodedera», afaria eta Djak.

Iriherri elkarteak, tokiko eragile eta Irantzu euskara zerbitzuaren eskutik hainbat ekitaldi antolatu dira Kulturalerako: Hala, martxoaren 2ko 19:00etan bertso-merendua Julio Soto eta Saioa Alkaizarekin trikitilari eta panderojoleak lagunduta Aritzalan, martxoaren 3an 17:30ean Abartzuzan «Habiako ipuinak» haurrentzako ipuin-kontaketa musikatua Ameli eta Xirrikituaren Jostunekin, 9an Korrika jardueraren Oteitzan, 10ean 17:30ean Hodei Magoa Villatuertako Jubilatuen Elkarteko aretoan eta 15eko ostiralean Iriherriaren Korrika festa Muetzen: Korrika txikia, merendua, kontzertua...

Korrika Eguna Lizarran

Martxoaren 17an, igandearekin, Lizarran Korrika eguna izanen da. Hala, goizean mendi-martxa txikia eta arratsaldean, batetik, Udalak erosi ez duen kilometroa lasterka egingen dute herritarrek, musika eta dantza lagun, eta ondotik elkarrekin pintxo-potea, Bota Peñan musika eta Gazte-txean afaria izanen dira Korrikari gogoz eta ase itxaroteko.

Korrikak Lizarraldean atzean utzita ez da amaitzen Korrika Kulturala: 21ean 17:30ean hileko Txokolipuinak saioa Xabier Flamariquerekin eta 24an guztiok Baionarat, Korrika Busa Lizarraldetik.

Korrika ibilbidea

Korrikak martxoaren 17tik 18rako gauean igaroko du Lizarraldean, Azagratik sartuko da arratsaldeko zazpiak pasata eta ordu txikitik utziko gaitu astelehen goizean. Hona hemen zeharkatuko dituen herriak eta ordu-egia: Azagra 19:25, San Adrian 19:58, Andosilla 20:23, Carcar 20:49, Lodosa 21:48, Sesma 22:45, Allo 0:10, Deikaztelu 0:30, Muniain 0:43, Lizarra 1:09, Zubielki 1:54, Murieta 2:53, Antzin 3:12, Azedo 3:45, Zuñiga 4:24, Kanpezu 4:54, Genevilla 5:26



Edizio honetako Korrika aurkezpenean Ainhoa Egizabal Maria Vicuñan.



Azterketak euskaraz, Donapaleu (2021eko uztaila). © Guillaume Fauveau, Berria.

Euskaraz ikasteko eskubidea bidegurutzean

Azterketak, garraioa, ordutegiak... Asko dira ikasle euskaldunen hezkuntza prozesuan eragina duten faktoreak

Artikulugilea: **Onintze Arrastia Mauleon**

Baxoa eta brebeta —Ipar Euskal Herrian eta Frantzia ikasleek egin beharreko derrigorrezko azterketak, lehen 15 bat urterekin egiten da eta bigarrena 18rekin— euskaraz egin ahal izan daitezen urte luzez dabilta borrokan Iparraldeko ikasle asko. Urtrilaren amaieran KORRIKAtik Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu zuten. Euskaraz ikasi eta gero, azterketak frantsesez egitera derrigortuta zeuden ikasleak eta, nola ez, Azterketak Euskaraz kolektiboa osatzen duten Seaskako ikasle, irakasle, guraso eta ikasle ohiak omendu zituzten Hondarribian Korrikak egindako ekitaldian.

Brebetako probak behin betiko euskaraz izatea lortu zuten ia. Ondorioz, Seaskako 300 ikasleek

brebeta bete-betean euskaraz egin ahal izan zuten lehen aldiz, urte askotako borrokaren ondotik. Baxoaren kasuan, ordea, frantsesez egin behar izan zuten azterketa; hizkuntza eskubideak erabat urraturik. Bere ibilbide akademikoan garrantzia handia hartzen duen atal horretan, bere ikasketa-prozesu osoan erdigunean eduki duen hizkuntza erabili ezinik gelditzen dira ehun ikasle euskaldun baino gehiagok. Noiz eta erabakigarria den azterketan, behinik behin goi mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasleentzat.

Hizkuntza eskubideen urraketak ezagunak ditugu inguruan ere, besteak beste Nafarroako hegoaldean euskararen zonifikazioari dagokionez bizi dugun egoera dela eta. Lizarraldean hainbat eta hainbat

dira euskarari uko egin eta erdaraz ikastea aukeratu behar duten ikasleak, edota euskaraz ikasi ahal izateko oztopo askorekin topo egiten dutenak.

Lizarra Ikastola, Remontival eta Lizarralde BHI ditugu euskarazko hezkuntza eskaintzen duten ikastetxerik handienak gure eskualdean; azken biak publikoak —bata Lehen Hezkuntzakoa eta bestea Bigarren Hezkuntzakoa—. Hara joaten dira normalean ikasketak euskaraz egin nahi dituzten herrietako ikasleen gehiengoa, izan bere herriko eskolan ez dagoelako D eredurik edo besterik gabe herrian ez dagoelako eskolarik. Edozelan ere, denek daukate amankomunean gauza bat: garraioa erabili beharra.

2022tik Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraiorako eskubidea dute ikasle guztiek; hala zehazten da urte horretako Foru Aginduan: «Eguzkeraren edo astero bere ohiko bizilekutik ikastetxeraino eta ikastetxetik etxeraino» bidaiatzen duten ikasleak dira onuradunak. Lizarraldean, garraioaren auziak eztabaida eta borroka ugari piztu izan ditu azken urteotan, batez ere Batxilergoko D ereduako ikasleen eskutik. Euskara ikasgaia izateak lau egunez eskola ordu bat gehiago izatea suposatzen du, eta beraz, duela bi urte ikastetxetik ateratzean ez zeukaten garraio-zerbitzua bermaturik. Gaur egun, ordea, kontua bestelakoa da; eta ezin ahaztu euskarazko ikasleek egindako borrokaren ondorio dela.

Erriberako ikasleek euskaraz ikasi ahal izateko egindako esfortzua ere txalotzekoa da. Autobusez egindako bidai luzeak tarteko, eguzkeraren Lizarraraino joan-itzulia egin izan dute soilik euskaraz ikasteko.

Bada, hurrengo ikasturtetik aurrera Lodosako ikastetxe publikoan D ereduaz ezarriko da. Horrek eragin positiboa izanen du aipatutako ikasle horiengan guztiengan. Hala ere, Batxilergoa egin nahi izanez gero, Lizarrara mugitzen jarraitu behar izanen dute, horrek dakarren neke eta ezinegonarekin.

Marko instituzionalean euskararen aldeko politikak bultzatu direla argi dago. Baina euskaraz ikasteari dagokionez oraindik ere zailtasunak egon badaude. Orain arte Batxilergoaren inguruan mintzatu gara, baina ezin aipatu gabe utzi Lizarrako Lanbide Heziketan, Politeknikoan, graduak egin nahi dituzten ikasleentzat ez dagoela euskaraz egiteko aukerarik. Azken urteetan instituzioen aldetik hamaika saiak egin dira hizkuntzaren aldeko politikak bultzatzeari begira, baina hausnartzeko modukoa da nola ikasleen baldintza materialak ez diren kasik aldatu. Egun, Nafarroako hegoaldeko ikasleetako askok, Ipar Euskal Herriko ikasleek bezalaxe, euskaraz ikasteko eskubidea ukatua daukate.

Euskaltzaletasuna eta euskararen aldeko jarrera geroz eta handiagoa den garai honetan, horren zabalpenerako baldintzak egotea ezinbestekoa da; eta hezkuntza sistema sartzen da hor jokoan. Euskaraz ikastea ezin delako sakrifizio bat bilakatu, kontrara, gure hizkuntzan ikasteak euskararen aldeko borrokan ardatz bihurtu behar du. Historiak erakutsi digu heziguneez daukatela aldaketarako giltza. Horregatik da beharrezkoa hezkuntza euskaldun baten beharra mahaigaineratzea eta hori bermatuta egon dadin baldintzak aldarrikatzea.



672 050 155
Mintzakide
garean@gmail.com



ASTARRIAGA
GRAFICAS

Pl. Zugarraondoa, 6 · ABARZUA · TEL. 948 520 138



Foto-inkesta:

Hogeita hirugarren Korrika hemen da, lasterketa erraldoi honek Euskal Herriko zokomira guztiak ibiliko ditu martxo alde eta horrekin bat, euskaltegiko ikasleen bizipenak ezagutu nahi izan ditugu.

1. Hasteko, zer da zuretzako Korrika, hiru hitzetan.
2. Euskararen inguruan, Lizarra harro egoteko herria al da?
3. Aurtengo Korrikan parte hartzeko prest?



Amaia Morais

1. Niretzat Korrika egun berezia da. Betidanik korrika egin izan dut, ikastolan, Korrika Txikian eta Korrika handian 2 urtez soilik, oso berezia zait.
2. Baietz uste dut. Lizarran eta Lizarraldean euskara nabarmentzen ari da. Harro egoteko modukoa da.
3. Bai, prest nago. Korrika egingo dut eta hurrengo Korrikan ea ahal dudan laguntzaile bezala parte hartu. Dena den, beste edozein modutan parte hartzeko prest nago.



Karmele Peña

1. AEK-rako eta euskararen alde dirua biltzeko ekimen polita iruditzen zait.
2. Bai, orain lehen baino gehiago hitz egiten dugu euskaraz Lizarran. Gainera, orain, hainbat ekintza euskaraz gozatzeko aukera dago.

Esaterako filmak, antzerkia, Euskaraldia....

3. Korrika laguntzailea naiz, Korrikako arropa erosten dut eta normalean korrika ere egiten dut. Aurten ordu txarrean pasako da eta ez dakit lasterka egingo dudan, baina beste ekintzetan bai hartuko dut parte.



Ramon Casado


1. Oso ekimen garrantzitsua iruditzen zait euskarari bultzada handia emateko.
2. Bai, herriko kaleetan gero eta gehiago entzuten da euskara. Orain toki askotan erabili daiteke.
3. Bai, ekitaldietan parte hartuko dut, eta Korrika egunean Lizarrako kaleetan lasterka egingo dut.

BAZKIDETU

Garean Euskaldunon Elkartearen eta lagundu gure proiektuak finantzatzen.
Kuota arrunta: 72 euro urtean.




Bazkidezteko eta informazioa:
kotarro.eus/bazkidetu/





denborapasak

Gurutzegrama



Goitik behera

- 1- Goimailako ikasketetara joateko azterketa, Iparraldean.
- 2- 23. Korrikan omenduek eskatzen dute: «..... euskaraz»
- 3- 23. Korrikan: «..... herri».
- 6- Bularrean.

Ezker eskubi

- 4- Korrikaren antolatzailea.
- 5- Korritzen dena.
- 7- Lizarran «Beñat» euskaltegia.
- 8- 14-15 urterekin Iparraldean egiten duten azterketa.

Euskal glifoa



Bertso zutabea

KORRIKA

Egilea: **Mikel Pinillos**

Doinua : Norbere mundu intimo

Jendetza espaloietan
Zai, urduritzen hasita
Korrikak beste behin ere
Lizarran gaur dauka zita
Oihuak entzuten dira
Ozen ika, ika, ika!
Pozak eztanda egin du
Txaloka ta irrintzika
Lekukoa hemen dago
Goazen atzetik segika
Emozioak borborka
Ametsak, nahiak, irrika
Nahiz eta ezinak ere
Sarritan egin bisita
Ze lujo hau bizitzea
Eskerrik asko Korrika!

Semeak eskutik helduz
Jendeoldean barrena
Zangoak ia aidean
Ahoan oiho ozena
Euskaraz bizi nahi dugu!
Horixe da gure dema
Hori da herri zahar honen
Biziraupenaren sena
Nahiz ta egunerokoan
Bihurtu sarri problema
Irriz jarraitu dezagun
Pikutara etsipena
Nerea egin nahi nuke
Ametsek esan zuena
Euskaldun izatea da
Gure zigor ederrena



5 hitz

Onintze
Arrastia

Kilkerren artetik

Kritika hitzak beti izan du zapore mingots samarra. Hitz horren erranahiak gibelerantz botatzen gaitu zenbait kasutan —ez bada kasu orotan—. Sabeleko minaren antzera sentitzen dugu kritika guregan.

Zein da, bada, kritikaren erranahia eta zentzua? Krisiarekin lotzen du RAEk hitza —krisiarekin?—. Beno, bederen badute zerbait antzekoa tankerari dagokionez; krisia eta kritika, krisia-kritika, kri-kri, kri-kri... Kilkerren soinua, isilune deseroso baten sinbolo.

Krisi garaian deseroso sentitzen gara, bazter guztiak betetzen dituen isiltasun horren gaitibu. Gure barnea, ordea, zarataz beterik dago. Eta etengabeko zarata horrek ez du lekurik uzten kritikotasunerako, kritika zehatzak egiteko gaitasunerako. Aldiz, kritika desegoki eta inbaditzaileek gure deserosotasuna elikatzen dute; krisiak antzera kolpatzen gaituzte. Hargian iltzatzen dira mingarri, eta gu, zaurgarri.

Behin baino gehiagotan entzun izan dut jarrera kritikorik gabe ez dagoela nola akitu ustelkeriarekin. Zeren eta mundua ustela baitago, eta gu guztiok usteltzen ari gara kasik konturatu gabe. Edo konturatzen gara, baina nahiago dugu erruduntzat jo alboan duguna, berarengana hamaika kritika desbideratu bota, eta gero, behin alboko hori apurturik utzirik, gure bizitza zaratatsurekin jarraitu.

Kri-kri, kri-kri entzuten delako kritika on bat egiten denean.



Euskararen memoria
guneak Estellerrian

Bargagorria

Bargagorria

Non aurkituko da «Estellerriko eskua»? Non ote dira Estellerriko euskararen lehen aztarnak? Estellako Lizarra auzoko zorupean, errotonda baten azpian lurperaturik? Ameskoagainako erkametz baten sustraietan? Auskalo, baina, aurkitu arte, irudimenari utzi behar diogu hegan egiten.

Eta gaur, atal berri honen lehen emanaldian, antzinako herrixka batean imajinatuko dugu, Altikogainaren azpian, Eraul eta Larrionen artean dagoen Bargagorriko aztarnetan. Garai hartako euskararen mintzatzen ziren bertako biztanleak? Baskoiaz? Toponimoa bera euskaraz mintzo zaigu, baina irudimenak urratu dezala bidea...



Bargagorriko gaina; eskuinean, Belastegiko mendi-hegalak; urrutian, Jurramendi.

kotarro

68. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.
31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700



paper birziklatua

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



Kotarro aldizkarian agertzen diren
artikuluen edukiaren ardurarik
Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen,
edukiaren erantzukizuna, osotasunean,
autoreena baita.